



2010/06/15ko prentsa-oharra

HIGIEZINEN ESKAINTZARI BURUZKO ESTATISTIKA (OFIN)

2010eko 1. hiruhilekoa

2009ko laugarren hiruhilekotik 2010eko lehenengora bitarte, etxebizitza erabilien metro karratu erabilgarriaren eskaintza-prezioa % 1,4 handitu du, eta etxebizitza librean kasuan, aldiz, % 0,9 murriztu da prezioa EAEn

Higiezin agentziek etxebizitza bat saltzeko behar duten batez besteko denbora 8,2 hilabetean dago, aurreko hiruhilekoan baino hilabete erdi gutxiago.

2010eko lehen hiruhilekoan etxebizitza erabiliaren metro karratu erabilgarriaren batez besteko prezioak -Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egindako Higiezin Eskaintzari buruzko Estatistikak eskainitakoak- adierazten duenez, aurreko hiruhilekoan baino % 1,4 handiagoa da, baina duela urtebete baino % 4,8 txikiagoa, 3.830 euroraino iritsiz.

Araban, higiezin agentziek eskainitako etxebizitza erabiliaren metro karratuaren prezioa ia ez da aldatu, % 0,1 handiagoa baita, eta 2009ko lehen hiruhilekoan baino % 1,6 handiagoa da. Bizkaian, 2009ko laugarren hiruhilekoan baino % 0,9 handiagoa da, eta % 12,8ko beherakada metatu du azken 12 hilabeteetan. Gipuzkoan, lehen hiruhilekoan % 1,6 handitu da, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 0,6 urtean.

Donostian, etxebizitza erabilien metro karratuko prezioa % 0,6 jaitsi da azken hiru hilabeteetan, eta Bilbon beherakada pixka bat txikiagoa izan da (-% 0,2). Gasteizen, aldiz, % 0,3 handitu da. Donostian izandako urteko bilakaerari begiratuta, % 7,9ko hazkunde negatiboa metatu da, Bilbon % 6,5 gutxiago, eta Gasteizen, % 0,5 gutxiago.

Higiezin agentziek bitartekari gisa jarduten dute, eta baieztatu dutenez, etxebizitza-saltzaileek batez beste % 18,5 murriztu behar dituzte etxebizitza erabilien prezioak, salmentak egiteko. Ehuneko hori ehuneko 7,1 puntu handitu da azken hiru hilabeteetan, eta ehuneko 5 puntu aurreko urteko aldi berarekin alderatuta.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico


Etxebizitza berri librearen metro karratuaren eskaintza-prezioa (3.998 euro) % 0,9 murriztu da hiruhilekoan, urteko % 1,4ko beherakada metatuz.

Eskaintzako etxebizitza berri librearen metro karratuaren prezioa Araban % 0,7 aldatu da 2009ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, azken 12 hilabeteetan % 4,3ko hazkundera metatuz. Gipuzkoan, metro karratuaren prezioa % 1,2 murriztu da azken hiru hilabeteetan, baina % 2,4ko hazkundera metatu du azken urtean. Bizkaian, aldiz, % 0,7 murriztu da 2009ko azken hiruhilekoarekin alderatuta, urte osoan % 4,4 galduz.

Etxebizitza librearen metro karratuaren prezioa Donostian % 4,1 murriztu da azken hiruhilekoan

Gasteizen, etxebizitza librearen eskaintza-prezioak % 0,6 handitu dira, eta Bilbon, aldiz, ia ez dira aldatu (% 0,2). Azken hamabi hilabeteetan, Gipuzkoako hiriburuan, etxebizitza librearen metro karratuaren eskaintza-prezioa % 2,6 handitu da. Bestalde, Bilbok prezioen % 4,3ko beherakada metatu du, eta Gasteizek % 3,7ko beherakada.

Sustatzaileek eta higiezin agentziek 9.900 euro jaitsi zuten etxebizitza librearen guztizko prezioa azken 12 hilabeteetan (% 2,9)



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Higiezin Eskaintzari buruzko Estatistika



ETXEBIZITZA MOTA: Etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzaileak zuzenean eskainitakoa, akabera maila "normalarekin" eta 60-90 m²-ko azalerarekin.

Sustatzaileek eta higiezin agentziek eskainitako etxebizitza berri librearen batez besteko prezioa 325.700 eurotan egon da 2010eko lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino % 1,1 txikiagoa, eta % 2,9 txikiagoa, azken hamabi hilabeteak kontuan hartuta.

Bigarren eskuko etxebizitzaren guztizko batez besteko prezioa -313.300 euro-, batez beste etxebizitza berri librearena baino 12.400 euro txikiagoa, % 1 hazi da azken hiruhilekoan, baina % 4,7ko beherakada metatu du azken 12 hilabeteetan, 15.300 euroko beherakada.

Araban, etxebizitza librearen eskaintza-prezioak % 0,7 hazi dira azken hiruhilekoan, eta etxebizitza erabiliarena, aldiz, % 1,2 jaitsi da. 2009ko lehen hiruhilekoa erreferentzia gisa hartuta, lurralde horrek % 6,3ko hazkunde metatu du etxebizitza berri librearen prezioan, eta % 0,8ko hazkunde etxebizitza erabiliaren prezioan. Etxebizitza librearen batez besteko prezioa 295.400 euro hazi da lurralde horretan, eta erabiliaren prezioa 291.800 euro.

Bizkaian, etxebizitza librearen eskaintza-prezioa 318.000 eurora igo da laugarren hiruhilekoan, azken hiru hilabeteetan % 1,3 jaitsi ondoren, eta ia % 6,8 inguru azken urtean. Etxebizitza erabiliaren prezioa % 0,8 hazi zen laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta azken hamabi hilabeteetan, aldiz, % 11,3ko beherakada metatu du; egungo batez besteko prezioa 296.500 eurotan dago.

Gipuzkoak etxebizitzaren batez besteko prezio altuenak ditu oraindik: 356.200 euro etxebizitza berri librearen kasuan, eta 383.300 bigarren eskuko etxebizitzaren kasuan. Lehen etxebizitza motaren prezioa % 1,1 murriztu da azken hiru hilabeteetan, eta etxebizitza erabiliaren prezioa, aldiz, % 2,4 handitu da. Azken hamabi hilabeteetan, etxebizitza berri librearen eskaintza-prezioa ez da aldatu, eta bigarren eskuko etxebizitzaren prezioak, aldiz, % 2,1 murriztu ziren.

Etxebizitza berri librearen eskaintza-prezioa 19.800 euro jaitsi zen Bilbon azken hamabi hilabeteetan, eta 8.500 euro Gasteizen. Donostian, aldiz, 3.200 euro igo zen.

Higiezin agentziek eta sustatzaileek azken hiruhilekoan % 1,5 murriztu zituzten etxebizitza berri libreen salmenta-prezioak Donostian. Bilbon, aldiz, % 1,7 handitu ziren, eta Gasteizen % 0,8. Batez besteko prezioa honako hau da hiriaren arabera: Donostian 456.600 euro, Bilbon 396.500 euro, eta Gasteizen 314.100 euro. Azken 12 hilabeteetan, Bilbok eta Gasteizek % 4,8ko eta % 2,7ko beherakada metatu dute, hurrenez hurren, eta Donostian, aldiz, prezioak % 0,7 handitu dira.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Etxebizitza erabiliaren salmenta-prezioa % 0,9 murriztu zen azken hiruhilekoan Gasteizen, eta Donostian eta Bilbon, aldiz, % 1,4 eta % 2,5 handitu zen, hurrenez hurren. 2009ko lehen hiruhilekoaz geroztik, % 8ko beherakada sumatu da Donostian -41.100 euro gutxiago batez beste-, eta % 0,6 -1.800 euro gutxiago- Gasteizen. Bilbon, aldiz, batez besteko prezioa % 2,3 handitu da, hau da, 8.200 euro gehiago.

Azken urtean, higiezin agentziek eta erakundeek eskainitako alokairuko etxebizitzaren bolumena % 30,7 handitu da

Alokairuko etxebizitza-eskaintzaren bolumena -librea eta soziala- % 4,7 hazi zen azken hiru hilabeteetan, eta 30,7 azken urtean; kopuru hori eskaintzaren guztizko etxebizitza kopuruaren hamarretik bat baino gehiago da (% 12,5).

Etxebizitza libreen batez besteko alokairu-errenta 888,8 euro da, aurreko urteko azken hiruhilekoan baino % 1,5 gehiago, eta 2009ko lehen hiruhilekoa erreferentzia gisa hartuta, prezioak % 5,7ko beherakada metatu du.

Etxebizitza babestuen -BOE eta etxebizitza sozialak- batez besteko alokairu-errenta 208,0 euro da, aurreko hiruhilekoan baino % 5,4 txikiagoa, eta duela hamabi hilabete baino % 12 txikiagoa.

Sektore babestua -BOE eta etxebizitza sozialak- eskaintzako bost etxebizitzatik bat inguru merkatuan kokatzen ari da (% 17,3), batez beste 112.800 euroko prezioan (1.467 euro metro karratu erabilgarri bakoitzeko). Etxebizitza horien batez besteko prezioa ia ez da aldatu bi hiruhilekoak konparatzen baditugu (% -0,2), eta % 4,8 handitu da 2009ko hiruhileko berarekin alderatuta.

Higiezin agentziek etxebizitza bat saltzeko behar duten batez besteko denbora 8,2 hilabeteetan kokatzen da, duela urtebete baino hilabete erdi gehiago, baina aurreko hiruhilekoan baino hilabete erdi gutxiago.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berria

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

HIGIEZINEN ESKAINTZARI BURUZKO INKESTA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN		2010ko 4. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekik o aldaketa		Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldaketa	
M2 ERABILGARRIAREN BATEZ BESTEKO PREZIOA		Euroak		Euros	Var %	Euros	Var %
Euskal Autonomia Erkidegoa	B.O. berria/Etxeb. Soziala	1,467		-2.3	-0.2	66.7	4.8
	Berria librea	3,998		-34.4	-0.9	-56.4	-1.4
	Erabilia	3,830		51.5	1.4	-194.1	-4.8
Araba	Berria librea	3,489		22.6	0.7	145.3	4.3
	Erabilia	3,555		4.9	0.1	55.4	1.6
Bizkaia	Berria librea	4,005		-30.0	-0.7	-185.2	-4.4
	Erabilia	3,615		33.3	0.9	-531.6	-12.8
Gipuzkoa	Berria librea	4,322		-50.9	-1.2	102.7	2.4
	Erabilia	4,760		74.0	1.6	27.7	0.6
Euskal Autonomia Erkidegoa	(1) MOTAKO ETXEBIZITZA	3,288		-50.1	-1.5	-201.4	-5.8
Berria librea	Gasteiz	3,726		21.7	0.6	-144.1	-3.7
	Bilbo	5,129		9.4	0.2	-228.7	-4.3
	Donostia	5,380		-231.4	-4.1	138.9	2.6
Erabilia	Gasteiz	3,611		10.8	0.3	-18.0	-0.5
	Bilbo	4,231		-9.0	-0.2	-293.9	-6.5
	Donostia	5,556		-33.9	-0.6	-478.6	-7.9
ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO PREZIOA		Milaka Euro		Milaka Euro	Ald %	Milaka Euro	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	B.O. berria/ Etxeb. Soziala	112.8		-2.5	-2.2	1.0	0.9
	Berria librea	325.7		-3.5	-1.1	-9.9	-2.9
	Erabilia	313.3		3.2	1.0	-15.3	-4.7
Araba	Berria librea	295.4		2.1	0.7	17.6	6.3
	Erabilia	291.8		-3.4	-1.2	2.3	0.8
Bizkaia	Berria librea	318.0		-4.3	-1.3	-23.3	-6.8
	Erabilia	296.5		2.4	0.8	-37.8	-11.3
Gipuzkoa	Berria librea	356.2		-3.9	-1.1	-0.1	0.0
	Erabilia	383.3		9.0	2.4	-8.0	-2.1
ETXEBIZITZA ESKAINTZA		Unitateak	%	Unitateak	Ald %	Unitateak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	Guztizkoa	28,422	100.0	862	3.1	2,667	10.4
	B.O. Berria/Etxeb. Soziala	4,916	17.8	-95	-1.9	311	6.7
	Berria librea	5,030	19.4	-87	-1.7	-19	-0.4
	Erabilia	14,936	51.2	883	6.3	1,545	11.5
	. Soziala/Librearen Alokairua	3,541	11.5	161	4.7	831	30.7
ALOKAIRU ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO		Euroak		Euroak	Ald %	Euroak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	BOE / Soziala	208.0		-11.9	-5.4	-28.4	-12.0
	Librea	888.8		13.5	1.5	-53.2	-5.7
ETXEBIZITZA BAT SALTZEKO BEHAR DIREN		8.2		-0.4	-4.8	0.3	3.9
AZKEN PREZIOAREN MURRIZKETAREN BATEZ BESTEKO EHUNEKOAK. ETXEBIZITZA ERABILIAK		%		Aldea portzentajezk o puntutan		Aldea portzentajezk o puntutan	
Euskadiko AE		18.5		7.1	61.8	5.0	37.2
Araba / Álava		11.5		4.1	55.6	-1.0	-7.7
Bizkaia		12.6		0.8	6.6	-1.6	-11.4
Gipuzkoa		28.6		16.7	140.2	15.8	123.7

(1) Etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzaileak zuzenean eskaintakoa, akabera maila "normalarekin" eta 60-90 m2-ko azalerarekin.

Ohar metodologikoa

2009ko laugarren hiruhilekoari buruz aurkeztutako datuak hiruhilekoaren amaieran elkarriketaturiko 119 higiezin agentzietako lagin batetik eta 5 etxebizitza baino gehiagoko sustapena duten 171 sustatzaileetatik atera dira. Nolanahi



**ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA**
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

ere, eskaintako prezioak dira, eta ez jada egindako salmenta-prezioak. Honela kalkulatu dira prezioak, eskaintza eta alokairuak: laugarren mailako batez besteko mugikorrek baliatuz, ausazko aldatetarako gutxiagotzeko.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistikarako Organo Berezia

Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena

Tel.: +34-945-01 97 12 Fax.: +34-945-01 64 07

Prentsa-oharrak Interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/es/>

WEB: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/es/>